

Ezezko perpausetako galdegaiak eta ukagaiak

Janire Urrestarazu Aizpurua
Tutorea: Pablo Albizu
Euskal Ikasketetako Gradua
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Ikasturtea: 2014-2015

AURKIBIDEA

LABURPENA	2
1. Sarrera	4
2. Galdegaiak baiezko perpausetan	5
3. Ezezko perpausetako galdegaiak.....	6
4. Ezeztapenaren semantika	9
4.1. Ezeztapena eta besarkadura harremana	9
4.2. Ukagaia eta kontrastea	11
5. Galdegaia eta ezeztapena	12
6. Galdegai eta ukagaien zenbait ezaugarri sintaktikoak	13
7. Anlisi sintaktikoa.....	17
8. Ondorioak.....	27
9. Bibliografia.....	31

LABURPENA

Eskuartearen duzun lan honetan ezezeko perpausetako galdegaien eta ukagaien arteko bereizketaren beharra defendatuko da. Beaudrieren (2005) esanetan galdegaia informazio berria dakarren perpausoko osagaia da eta bi foku mota bereizi zituen: informatiboa eta identifikatiboa. Lehenengoan informazio berria aurkezten du galdegaia eta bigarrenan auresuposizioko osagaien bat zuzendu edo berretsi egiten du. Baiezko nahiz ezezeko perpausetan ager daitekeen elementua da galdegaia. Ukagaia, aldiz, ezezeko perpausetan soilik topa dezakegu eta perpausuan ezeztatzen den elementua da.


Urteetan zehar ez da bi galdegai mota hauen arteko sailkapena egin, biak galdegai terminoaz adierazi baitira. Lanera ekarririko ezezeko perpausen bi lan deskribatzaileetan, Altuberenean (1920, 1929) eta Lafitterenean (1944), argi ikus daiteke termino bereizketa ez zegoela indarrean, nahiz eta bai galdegaiaren eta bai ukagaiaren posizioak identifikatu zituzten. Beraienezat ez partikula zen ezezeko perpausetako galdegaia. Hala ere, honen aurrean kokatzen zen galdegaia eta aditz laguntzailearen eta partizipioaren artean agertzen zena ere deskribatu zituzten. XX. mendearen bukaera aldera etorri zen bereizketa, de Rijk (1996) eta Ortiz de Urbinak (1999) aipatzen baitute.

Galdegaia eta ukagaia ezaugarri semantiko eta sintaktiko desberdinak dituzte. Semantikaren aldetik ezetzaren besarkadura harremanean bada desberdintasunik. Galdegaia ezetzaren besarkaduratik kanpo edo besarkadurapean egon daiteke eta ukagaia beti dago ezetzaren besarkadurapean. Etxeparek eta Uribe-Etxebarriak (2008) besarkaduraren arabera bi interpretazio aurkezten dituzte: foku askea eta foku uztartua. Euskaraz bi interpretazio hauen arteko aldea galdegaia kokaturik dagoen posizioaren arabera da. Ezetzak bere mende hartzen duen galdegaia interpretazio uztartua izango du eta galdegaia ezetzaren besarkaduratik kanpo gelditzen bada interpretazio askea.


Ez dut sagarra jan, udarea baizik eta *Sagarra ez dut jan, ez udarea* erako adibide pareek besarkaduraren berri emateaz gain, galdegaia eta ukagaia bereizteko bidea ere ematen digute. Izan ere, jarraipen positiboak soilik ukagaia barne hartzen duten perpausetan dira posible eta jarraipen negatiboak galdegaia dagoen perpausetan.

Alderdi sintaktikoari dagokionez, kontuan hartu behar da galdegaien eta ukagaien kokapena. Galdegaia FokS-ren espezifikatzailean kokatu ohi da eta kasu horietarako beharrezkoa dugu mugimendua. Ukagaia aditz laguntzailearen eta partizipioaren artean kokaturik topatzen dugu oro har eta ez du mugidarik jasaten.

(1) SAGARRA ez dut jan (galdegaia)



(2) Ez dut SAGARRA jan (ukagaia)



Galdegaia egongune horrekin lotzen badugu ere, informazio berria adierazten duen osagaia beste egonguneren batean ager daitekeela kontuan izan behar dugu. Ukagaia ere, ez da beti *in situ* geratzen, ukagaia bera galdegaia izan baitaiteke eta horrelakoetan FokS-ren espezifikatzailean kokatzen da.

Galdegaia eta ukagaia bereizita, ea perpaus berean biak agertzea zilegi den galde diezaioke edozeinek bere buruari. Erantzuna baiezkoa da, Etxepare eta Ortiz de Urbinak (2003) azaltzen baitute galdegaigune bat baterik egoteak ez duela bestean osagai bat agertzea eragozten.

Badirudi, beraz, galdegaiek eta ukagaiek ez dutela berdin jokatzeko ez semantikoki ez eta sintaktikoki ere eta euren artean bereizketa ezarri beharra dagoela.

1. Sarrera

Lan honen xede nagusia ezezko perpausetan galdegaien eta ukagaien arteko bereizketaren beharra azaldu eta argudiatzea izango da. XX. mendeko lanekin hasi eta azken urteotako ikerketetara bitartean ezezko perpausetako galdegaiak nola landu diren aurkeztuko da. Galdegaiaren eta ukagaiaren arteko bereizketa, termino erabileren aldetik behinik behin, nahikoa berria dela ohartuko da irakurlea, ikerlari zaharrenek ez baitzuten bereizketarik ezarri, guztiak ziren galdegai. XX. mendearen bukaera aldera sailkapenaren lehen aztarnak ikus daitezke eta hortik abiatuta orain artean hainbat lan argitaratu dira bereizketa zerk sustatzen duen adierazteko.

Hasieratik egin dut galdegaia eta ukagaia osagai desberdinak direlako ideia alde. Izan ere, semantikoki dakarten interpretazioaren desberdintasuna begi bistakoa baita neure ustetan. Galdegaiak informazio berria dakarren bitartean, ukagaiak normalean osagaien bat ezeztatzen du (nahiz eta zenbaitetan ukagaiak informazio berria aurkeztu). Ez da desberdintasun bakarra, noski eta bereizketaren argudio gehiago azalduko dira lanean, baina agian burura lehenengo datorkiguna izan daiteke.

Ezezko perpausak ez dira lanean jorratuko diren perpaus mota bakarrak. Garrantzia eman diot lehenik eta behin baieztatu perpausetako galdegaiak azaltzeari (2. atala), galdegaiaren inguruko orokorpenak adierazi nahi izan baititut. Galdegaiaren nondik norakoak aurkeztuta 3. atalean ezezko perpausetako galdegaien berri emango dut, Altube eta Lafitte erako ikertzaile zaharrenek galdegaia nola landu zuten azalduz. Osaren (1990) lana baliatuko dut galdegaien eta ukagaien arteko bereizketaren lehen zantzuak aurkezteko eta atalarekin amaitzeko bereizketa guztiz finkatuko dut.

Hurrengo atalean ezetzaren besarkadura harremanaz arituko naiz, galdegaiarekin duen harremana eta ukagaiarekin duena desberdinak baitira. Ukagaiaren eta kontrastearen arteko loturaz ere arituko naiz, ukagaia dagoen perpausetan kontrastea badela erakutsiz.

Jarraian galdegaiak eta ezeztapenak perpaus berean bat egiten duteneko informazioa eskainiko dut eta besarkadura harremanak edo o-komando baldintzak nola eragiten duen adieraziko. Ondoren, galdegaien eta ukagaien hainbat ezaugarri sintaktiko eskainiko ditut, bereizketa sendotze aldera.

Analisi sintaktikoari helduko diot gero, *(Miren/inor) ez da (Miren/inor) etorri (Miren/inor)* perpausean ukagaia kokaturik ikus daitekeen posizioen analisisia nolakoa izan daitekeen aurkeztuz. Galdegaia agertzen den ezezko perpausen analisi sintaktikoa ere burutuko dut *(MIREN) ez da (MIREN) etorri (MIREN)* perpausean galdegaiaren

posizioa nola eratorri den adierazten saiatuz. Amaitzeko ondorio nagusiak laburbiltzen saiatuko naiz.

2. Galdegaiak baiezko perpausetan

Lan honen helburua ezezko perpausetako fokua bereiztea den arren, galdegaien inguruko hainbat datu aurkezteari garrantzitsu deritzot. Horretarako, baiezko perpausak baliatuko ditut, ondoren ezezko perpausetara jotzeko. Honekin galdegaia zer den definitzen saiatuko naiz eta baita galdegai motak aurkezten ere.

Beaudriek (2005) galdegaia auresuposatua ez den perpausaren zatiari erreferentzia egiten dion elementua dela dio. Ikertzaile honek bi galdegai mota bereizi zituen: *informazioa fokua* eta *identifikazio fokua*. Azken foku motan honen baitan beste bereizketa bat (*kontraste fokua* eta *foku exhaustiboa*) gaineratu bazuen ere lan honetan ez dut aurkeztuko, sailkapen azalekoenarekin nahikoa delakoan bainago.

Bi galdegai moten arteko desberdintasuna semantikoa da, bakoitzak adierazten duenak egiten baititu ezberdin. Informazio fokua erremarekin loturik dagoela esan zuen Beaudriek (2005). Izan ere, perpausaren zati berria da eta hortaz, informazio berria aurkezten du. Identifikazio fokua auresuposatutako osagai bat zuzentzen edo berresten du eta Beaudriek (2005) jakinarazi zuenez mugimenduarekin loturik dago, agerikoa edo ezkutukoa izan.

(1) Nork ekarri du sagarra?

- a. AITAK ekarri du sagarra. (informazio fokua)
- b. Ekarri du sagarra AITAK. (identifikazio fokua)

Euskararen inguruko lanei erreparatuta XX. mendearen hasieran jada galdegaia identifikatu zutela ohartuko gara, bere kokalekuaren gaineko hainbat datu eman zituztela. Lekuonak (1918)¹ adierazi zuen baiezko perpausetan galdegaia aditzaren aurre-aurrean kokatzen den elementua dela. Ideia bera landu zuen Mitxelenak (1981) de Rijken hitzak testura ekartzean. Baina galdegaiez gain NZ-hitzez ere jardun zen, antzeko jokabidea dutela azalduz. Beraz, galdegaiak eta NZ-hitza aditzaren aurre-aurrean topatuko ditugu baiezko perpausetan.

(2) AITAK ekarri du sagarra. (galdegaia)

(3) NORR ekarri du sagarra? (NZ-hitza)

¹ De Rijken (1996) lanean irakurri dut.

(2-3) perpausetan argi ikus daiteke aurreko paragrafoan adierazitakoa, letra lodiz agertzen diren osagaiak, galdegaia eta NZ-hitza, aditzaren aurreko posizioan baitaude. Baina hitz hurrenkera hori ez da sakoneko egituran topatzen duguna, mugimenduen beharra agerikoa da. Gutxienez bi mugimendu gertatzen dira: aditza aurreratzea eta galdegaia aditzaren aurreko egongunera mugitzea.

(1a-b) perpausei gainbegiratu bat emanez gero ohartuko gara egitura desberdinak direla. (1a)-n Mitxelenak (1981) eta bestek adierazitakoa, hau da, galdegaiak aditzaren aurre-aurrean agertu behar duela, gertatzen dela dirudi. (1b)-k zalantza gehiago sortzen ditu, lehen begiratuan ez baitirudi (1a)-k bezala jokatzeko duenik ideia baieztapen horrekiko, hots, ez du ematen galdegaia aditzaren aurre-aurrean kokatua dagoenik. Baina ideia hori ez da zuzena. Izan ere, Beaudriek kontraste fokualak deiturikoak landu zituen Ortiz de Urbinak (2002). Lan hartan *zuzenketa fokualak (Focus of correction)* aztertu zituen eta azaldu zuen aditzaren aurre-aurreko egongunean kokatzen direla, baina ondoren perpauseko gainontzeko elementuak bere aurrera mugitzen direla. Hondarkinaren mugimendua² (*Remnant movement*) da hori, galdegaia ezkererantz mugitu ondoren, perpauseko gainontzeko elementuak goragoko posizio batera mugitzen dituenak.

3. Ezezko perpausetako galdegaiak

Baiezko perpausetako galdegaien nondik norakoak aurkeztu berri ditut eta lanaren benetako muinari heltzeko unea da. Baiezko perpausen gisan, ezezkoetan ere galdegaiak ditugu sarri. Baina galdegaiak gain ukagaia ere topatzen dugu askotan ezezko perpausetan (zenbaitetan ukagaiak berak galdegai dira). Hala ere, bereizketa horretara iristeko urteak igaro dira lehen ikertzaileek ezezko perpausetako galdegaiez jardun zutenetik. Ikus dezagun nolakoa izan den historian zehar galdegaiaren tratamenduan euskal ezezko perpausetan.

XX. mendearen lehen erdian ikertzaileek galdegai hitza erabili zuten beren lanetan. Ukagaiaren zantzurik ez da haien lanetan, lan honetarako baliaitutakoetan behinik behin.

Irakurri ditudan lanen artean zaharrenak Altuberenak izan dira. Bi galdegai desberdin atzeman ditzakegu Altuberen 1920 eta 1929ko lanetan. Lehenik *ez* elementua galdegaia delako baieztapena ekarri nahi dut lanera, nahiz eta aipaturiko bi lanetatik azkenekoan

² Uribe-Etxebarria (2003) lanean irakurri dut deitura hori.

aipatzen duen³. Ezin jakin zein interpretazioa zerabilkien buruan Altubek hau zioenean, baina horrelako perpausetan aditzaren balio negatiboa (agian asertzioa bera adierazi nahi zuen) dela azpimarratzen dena esan zuen.

(4) Ez dakigu ziur noiztikoa dan. (Altube 1929: 65)

Aurreratu bezala, bigarren mota bat ere aurkezten du Altubek (1920, 1929), aditz laguntzailearen eta partizipioaren artean kokatzen den galdegaia. Bigarren galdegai mota hau azpimarratu nahiko nuke lanean ukagai deiturikoaren antz handia baitu. Altubek galdegaia deitzen dio, baina esan liteke ukagaia bera dugula Altubek identifikaturiko galdegai mota hau. (5) perpausean *gitxiago* da galdegaia Altuberen esanetan.

(5) Menturaz ez deutsu GITXIAGO balijoko. (Altube 1920: 22, nire maiuskulak)

Ikerlari zaharrez ari garela Lafitte aipatzekoa da. Lafittek (1944) bat egiten du galdegaia ez partikula izan ohi delako baieztapenaren. Ohartzen da, Altube bezala, aditz laguntzailearen eta partizipioaren artean kokatutako galdegaiak usu agertzen direla⁴. Baina sakonago doa, sarri laguntzailearen eta partizipioaren artean osagai bat baino gehiago topa ditzakegula esanez. Eta horrelakoetan zein da galdegaia? Bi elementu edo gehiago daudenean zein den galdegaia finkatzeko garaian, Lafittek (1944) aditz laguntzailearen jarraian datorrenaren alde egiten du. Hala ere, ezin jakin zein interpretazio ematen zien horrelako galdegaiei. Lafitteren hitzak kontuan hartuta (6) perpausean *untzia* genuke galdegaia haren iritiz.

(6) Aitak ez du UNTZIA leihotik aurdiki. (Lafitte 1944: 65, nire maiuskulak)

Bada adierazpen hori ontzat ematen ez duenik, Osa (1990) esaterako. Berak aditz nagusitik hurbilen dagoen horrek duelako foku funtzioa dio, nahiz eta sarri intonazioaren eta ezaugarri gramatikalen bidez azpimarratzen den galdegai hori. (6)-ko perpaus bera hartuz gero, Osaren (1990) arabera *leihotik* da galdegaia, aditz partizipioaren aurrean kokatzen baita.

³ Aukeraketa hau egin dut lanaren egituraketarekin hobeto uztartzen delakoan. Izan ere, bigarren galdegai mota beste autore batzuek ere aipatzen baitute.

⁴ Lafittek (1944) ere ez du ukagaia hitza aipatzen, nahiz eta aurrerago defendatuko den posizio hori ukagaiarekin loturikoa dela.

(6') Aitak ez du untzia LEIHOTIK aurdiki. (Lafitte 1944: 65, nire maiuskulak)

Orain artean bi galdegai mota desberdinu ditugu: batetik ez elementua denean galdegaia, bestetik aditz laguntzailearen eta partizipioaren artean kokatzen dena, azken honen baitan beste bereizketa bat eginaz. Osak (1990) laugarren posizio batez dihardu, [ez+lag] elementuaren aurrean kokatzen denaz. (7) perpausari erreparatuz gero, ohartuko gara *sagarra* dela galdegaia.

(7) SAGARRA ez du Jonek jan.

Orain artean azaldu dut galdegaiarekin loturiko lau posizio bereizi dituztela aipatutako ikerlariak, posizio guzti horietako elementuek galdegai izena jaso dute⁵. Orain arteko lanetan ez da ukagaia aipatu, baina galdegaiaren eta ukagaiaren bereizketarantz garamatzan ñabarduraren bat jaso du hauetako batek, Osak hain zuzen ere. 1990eko lanean biltzen dira bereizketaren lehen zantzu horiek. *Galdegai kontrajarria* deitzen dio aditz laguntzailearen eta partizipioaren artean kokatutako galdegaiari. Ñabardura honen bidez aurreko lanetan deitura bera jasotako bi galdegai bereizten ditu.

(8) ZUHAITZA ez da erori.

(9) Ez da ZUHAITZA erori.

Osaren (1990) bereizketa kontuan hartuz, *zuhaitza* osagaia (8)-n galdegaia da eta (9)-n galdegai kontrajarria. Galdegai kontrajarria (hemendik aurrera ukagaia) ezezko perpausetan ukatzen den elementua da.

Bereizketa beranduago sendotu da, hala nola de Rijk eta Ortiz de Urbina ikerlarien eskutik. De Rijk (1996) *fokua* eta *sasigaldegai (quasifoci)* bereizten ditu. Lehena, Osak galdegai deiturikoarekin lotzen da eta bigarrena galdegai kontrajarriari egiten dio erreferentzia. Ortiz de Urbinak (2001) sasigaldegairako *ukagai* izena proposatzen du eta lanean zehar termino hori erabiliko dut aztergai dugun osagaiarekin hobeto lotzen delakoan.

⁵ Baliteke, aurrerago ikustiko dugun bezala, ukagaia bera galdegaia delako izatea.

4. Ezeztapenaren semantika

4.1. Ezeztapena eta besarkadura harremana

Ezeztapenaren besarkadura harremanak galdegaien eta ukagaien artean alde semantikoa ezartzen du. Perpauseko elementuak ezezaren besarkaduratik kanpo edo besarkaduraren mende egon daitezke. Galdegaiak besarkaduratik kanpo kokatu ohi dira eta ukagaiak besarkadurapean daude.

(10) Nor ez da etorri?

PERU ez da etorri.

(11) Peru etorri da?

Ez da PERU etorri.

Lehenengo perpausean *Peru* galdegaia da, bigarrenean ukagaia den bitartean. Ezezaren besarkadura harremana desberdina da bietan eta horrek desberdintasun semantikoak dakartza. Perpaus bakoitzaren aurretik egindako galderak bi perpausetako auresuposizioa desberdina dela adierazten dute. Lehenengoan auresuposizioa ezezkoa da eta bigarrenean positiboa.

Ezeta perpauseko gainontzeko osagaiengandik bereizten da Oihartzabalen (1985) arabera, asertzio modalitatea baita eta ondorioz ez du zuzenean parte hartzen erlazio predikatiboan. Bi ezeztapen mota bereizten dira: asertzioaren eta asertzioari ez dagokiona, “erlazio predikatiboan aitzin eraikia baita” Oihartzalek (1985) dioen eran. Asertzioari dagokion ezeztapena Sánchezek (1999) proposaturiko kanpo-ezeztapenarekin (*negación externa*) parekatzen da baita Etxepare eta Uribe-Etxebarriak (2008) foku zabala (*wide focus*) deiturikoarekin ere. Erlazio predikatiboari dagokiona barne-ezeztapena (*negación interna*) deituraz aurkeztu zuen Sánchezek (1999) eta Etxepare eta Uribe-Etxebarriak (2008) foku uztartua (*bound focus*) deiturikoaren interpretazioarekin estuki loturik dagoelakoan nago. Desberdintasuna ezezaren besarkaduraren araberakoa da. Kanpo-ezeztapenak bere gain hartzen du perpaus osoa eta aurretik adierazitako proposizioa ezeztatzen du. Barne-ezeztapenak berriz, perpauseko osagai bati edo gehiagori eragiten die, osagai horiek soilik ezeztatuz.

(12) Jon etorri da?

Ez, ez da Jon etorri.

(13) Jon etorri da?

Ez da Jon etorri (Miren baizik).

Bi egitura ezberdinen aurrean gaude, (12) perpausean asertzio osoa ezeztatu baita eta (13)-n *Jon* osagaia ukatu da eta. Adierazi bezala, bien arteko aldea ezeztapenaren besarkadura harremanean dago eta horren ondorioz zer ukatzen den aldatzen da.

Adierazi bezala ukagaiak ezeztapenaren besarkadurapean egon behar du.

- (14) a. *Miren* ez da etorri (Peru baizik).
b. Ez da *Miren* etorri (Peru baizik).
c. Ez da etorri *Miren* (Peru baizik).

Aurreko adibideetan adierazten diren posizioetatik edozeinetan dagoela, ezeztapenak besarkatu egin behar du ukagaia⁶, interpretazioa honen arabera baita.

Egonguneen eta besarkaduraren arteko harremanean zenbatzaileek hainbat datu ematen dizkigute. Zenbatzaileen interpretazioa aldatu egiten da besarkadurapean daudenean edo besarkaduratik kanpo gelditzen direnean. Badirudi besarkadurapean daudenean guztiz onargarriak ditugula, kanpo gelditzen direnean zailago onartzen ditugun bitartean.

- (15) a. ? Eskaera *guztiek* ez dute sinatuko.
b. Eskaera ez dute *guztiek* sinatuko.

(Ortiz de Urbina 1999: 188)

Ezezko Polaritatedun Elementuek ez dute zenbatzaileek bezala kokatzen, ukagaiaren antzeko baizik. Duten kokapena dutela, beren interpretazioa ezetzaren mende dago eta hortaz honen besarkadurapean daude Ortiz de Urbina (1999) esanetan.

- (16) a. *Miren/inor* ez da etorri.
b. Ez da *Miren/inor* etorri.
c. Ez da etorri *Miren/inor*.

Besarkaduraren mugaz jabetzeko ezezko perpausetan sarri erabiltzen diren jarraipenez balia gaitzke.

- (17) Ez dut sagarra jan, udarea baizik.
(18) Ez dut jan sagarra, ez udarea.

⁶ Analisi sintaktikoa aurrerago adieraziko da.

(17) perpausean jarraipen positibo batekin kontrastatzen da perpaus nagusia, (18)-n, ordea, ezezkoa da jarraipena. Ortiz de Urbinak (2002) adierazten duenez, ezetzaren besarkaduraren mende dagoen elementua bakarrik kontrasta daiteke jarraipen positibo batekin (19). Bestalde, jarraipen negatibo batekin ezetzaren besarkaduratik kanpo dagoen elementuren bat duen perpausa soilik kontrasta daiteke (20).

(19) *Ez dut sagarra jan, ez udarea.

(20) ?Ez dut jan sagarra, udarea baizik.

Ortiz de Urbinaren (1999) lanean adierazten da, jarraipen bakoitza arrazoi desberdinek zilegiztatzen dutela. (19) bezalako perpausetan jarraipena zilegiztatzen duena ez da ukagaia, ezetza bera baizik. Horrelakoetan, eduki kontrastiboa ezetzaren eta ukagaiaren arteko loturatik sortzen da. (20)-n eta honen tankerakoetan galdegaiak zilegiztatzen du, berak bertan eduki kontrastiboa.

Galdegai eta ukagaien beste diferentzia bat da Etxepare eta Ortiz de Urbinaren (2003) esanetan, esaldi nagusiko galdegaigunean dagoen elementua menpeko perpauseko galdegai gisa interpretatzen dela da, eta ez ukagai gisa.

(21) Horregatik esan dute ez duela erantzun. (Etxepare eta Ortiz de Urbina 2003:512)

4.2. Ukagaia eta kontrastea

Ukagaiaren eta kontrastearen artean bada harremanik, Ortiz de Urbinak (2001) de Rijkekin (1996) bat eginez adierazten baitu aditz partizipioaren aurre-aurrean kokatzen den elementua dela errazen kontratatzen dena. Haien arabera horixe izaten da ukagaiaren kokagunea normalean.

(22) Atzo ez nuen Mikel *Jonekin* ikusi (Anerekin baizik) (Ortiz de Urbina 2001: 345)

Lan horretan bertan aurrera eginez gero jakinarazten digu ukagaia ageri den perpausean kontrastea ageri dela. Ukagaiak berak ez omen du eduki kontrastiborik bertan irakur daitekeenez eta kontrastea jarraipenaren eta ezetzaren arteko harremanetik sortzen da Ortiz de Urbinaren (2001) ustetan.

(23) Nik ez dut ura ekarri.

(24) Nik ez du ura ekarri, ardoa baizik.

(23)-n ez dugu ezer kontrastatzen, (24) perpausean ‘ardoa ekarri dudala eta ez beste ezer’ adierazi nahi den bitartean.

5. Galdegaia eta ezeztapena

Baiezko perpausetan bezala galdegaiak agertzen dira ezezko perpausetan. Halako perpausetan ezeztapenaren besarkadura harremana nolakoa den azaltzen saiatuko naiz oraingoan, aurreko ataleko perpausekiko desberdinak baitira.

(25) MIRENEK ez du liburua ekarri.

Perpaus honetan galdegaia dugu *Mirenek* eta perpaus gramatikala sortzen da. Baina bada aurreko atalean aztertutako perpausekiko desberdintasunik besarkadura harremanean dela eta. Izan ere, galdegaia ezeztapenaren besarkaduratik kanpo gelditzen da.

Galdegaia posizio desberdinetan aurki dezakegu, baiezko perpausetako fokuak bereiztean ikusi dugun eran.

(26) MIREN ez da etorri. (Etxepare eta Uribe-Etxebarria 2008: 294)

(27) Ez da MIREN etorri. (Etxepare eta Uribe-Etxebarria 2008: 294)

(28) Ez da etorri MIREN.

Aurreko atalean (4.1) Etxepare eta Uribe-Etxebarriaren (2008) sailkapena aipatu dut, foku uztartua eta foku zabala bereizi zituztela adieraziz. Foku askea ere aipatzen dute beren lanean eta (26) perpauseko galdegaiak interpretazio askea duelakoan nago. Foku askea ezetzaren besarkaduratik kanpo gelditzen da. Informazio berria aurkezten da perpaus horretan.

(27)-n ukagaia bera da galdegaia, Etxepare eta Uribe-Etxebarriak (2008) foku uztartua deiturikoaren aurrean baikaude. Oraingo honetan ere informazio berria dakargu galdegaiaren bidez. Foku uztartuak, foku askeak ez bezala, ezetzaren besarkaduraren mende daude.

Azken perpauseko galdegaia, foku zuzentzailea duguna, eskuinean agertzen da. Gainontzeko galdegaiak ez bezala, honek ez dakar informazio berria, lehenago aipaturiko elementu bat aldatu egiten da zuzenarekin identifikatzeko. Lehen begiratuan

eztzaren besarkaduraren mende dagoela iruditu dakiguke, baina besarkaduratik kanpo kokatzen da.

6. Galdegai eta ukagaien zenbait ezaugarri sintaktikoak

Galdegai eta ukagaien arteko ezaugarri semantikoak desberdinak diren bezala, ezaugarri sintaktikoen inguruan ere bada diferentziarik. Atal honetan horien berri ematen saiatuko naiz zenbait ordena konturen eta mugimenduren berri emanez.

Lehenago adierazi bezala (3. atala), galdegaiaren posizioa jokaturako aditzaren aurrean kokatzen dugu, hain zuzen ere [ez+lag] elementu konplexuaren aurrean. Hala ere, informazio berria posizio horretatik kanpo ere ager daiteke⁷. Ukagaiak ordea ez du kokapen jakinik, nahiz eta sarri aditz laguntzailearen eta partizipioaren arteko gunearekin lotu Ortiz de Urbinaren (2001) esanetan.

(29) SAGARRA ez dut jan. (galdegaia)

(30) Ez dut SAGARRA jan. (ukagaia)

Semantikaz jardun den atalean besarkadura harreman aipatu da etengabe eta harremanen horren arabera perpausko osagaiak posizio desberdinetan kokatzen direla adierazi da. Galdegaia eztzaren besarkaduratik kanpo egon ohi da eta ukagaia besarkadurapean. Horrek galdegaiaren ezkerreko (Espec, FokS) eta ukagaiaren ohiko posizioa (aditz laguntzailearen eta nagusiaren artekoa) desberdinak direla ondorioztatzera garamatza. Beraz, badirudi propietate sintaktiko desberdinak dituztela.

*Albokotasunaren Baldintzak*⁸ galdegaien eta ukagaien arteko diferentzia baten berri ematen digu:

(31) *Albokotasunaren Baldintza*: Galdera eta foku egituretan NZ-hitzak zein fokuak aditzaren aurre-aurrean agertu behar dute.

Albokotasunaren Baldintza zer den azalduta adibide pare bat ematea komenigarria delakoan nago, aditzaren aurre-aurrean kokatzen denean perpaus gramatikalak sortzen direla ikusi ahal izateko eta baldintza betetzen ez denean nolako perpausak eratzen diren jakinarazteko. Hona hemen baiezko pare bat perpaus:

(32) a. Sagarra_i [jan du]_j Amaiak t_i t_j.

b. *Sagarra_i Amaiak t_i jan du.

⁷ (29) Nork ez dizkio giltzak eman?

Ez dizkio MIRENEK eman.

⁸ Uribe-Etxebarriaren (2003) lanaren bidez izan dut honen berri.

(32a) perpausean baldintza zuzen bete da aditza aurreratu eta ondoren galdegaia ere honen aitzinera mugitu baita. (32b) ordea, ez da perpaus gramatikala *sagarra* galdegaia badugu, aditza ez baita aurreratu eta horrenbestez ez baita galdegaiaren jarraian agertzen.

Ezezko perpausetan *Albokotasunaren Baldintza* bete behar dela esan dezakegu, nahiz eta ez den zehazki horrela. Izan ere, hauetan aditz laguntzailea mugitzen da soilik eta gainera galdegaiaren eta laguntzailearen artean *ez* partikula kokatzen da. Beraz, moldaketa zenbait egin behar eta galdegaia [ez+lag] elementuaren aurre aurrean agertu behar dela adierazi.

- (33) a. Sagarra_i ez du_j Amaiak t_i jan t_j.
b. *Sagarra_i ez Amaiak jan du.

Hau irakurrita, desberdintasun sintaktiko nabarmen batez ohartzen gara. Galdegaiak *Albokotasunaren Baldintza* bete behar du, ukagaiari baldintza honek eragiten ez dion bitartean.

Ortiz de Urbinaren (2001) lanean irakur daiteke, sakonen dagoen elementuak enfasi ez-markatua duela. Elordietak (2001)⁹ bertan oinarriz galdegaiaren eta ukagaiaren desberdintasun sintaktiko bat aurkezten du, ezezko perpausetan egongune sakonenean dagoen elementua ukagaia dela adieraziz, hauek ez baitute mugimendurik jasaten (34). Galdegaiek, berriz, ezkerrean mugimendua pairatzen dute (35).

- (34) Ez dut OGIA erosi.
(35) OGIA ez dut erosi.

Baina *scrambling* mugimenduen bidez hurrenkera aldatu egiten da eta ondorioz sakoneko elementua. Horrenbestez, *scrambling* mugimendua jasandako perpausetan ukagaia osagai desberdina izaten da. 3 atalean adierazi bezala, aditz laguntzailearen eta partizipioaren artean bi elementu edo gehiago agertzen direnean zein den ukagaia erabakitzeke garaian planteamendu desberdinak ikusi ditugu. Osarenari (1990) jarraituko diot, berriagoa den heinean, eta beraz, aditz partizipioaren aurrean kokatzen dena hartuko dut ukagaitzat. Hurrengo bi perpausetako osagaiak berberak dira, baina hurrenkera aldatzen da batetik bestela. Ikus dezagun horrek nola eragiten dion ukagaiari.

⁹ Ortiz de Urbinaren (2003) lanean irakurri dut.

(36) Aitorrek ez du parkean sagarra jan.

(37) Aitorrek ez du sagarra parkean jan.

(36)-ko hitz ordena neutroa genuke eta ukagaia sagarra dugu. (37) adibideko hitz-hurrenkera ordea, markatuagoa da, *scrambling* mugimendua jasan baitu eta ukagaia aldatu egiten da. Sakonen dagoen elementua *parkean* da mugimenduaren ondoren, eta horrenbestez hori dugu ukagaia.

Elordietak (2001) esandakoarekin loturik, Ortiz de Urbinaren (1999) lana aipatzea esanguratsua delakoan nago, bertan galdegaiak goragoko galdegaigunerako mugimendua egin dezakeela dioelako. Honen karira bi galdera luzatzen ditu: ea bi galdegai motak igo daitezkeen eta ea bi galdegaiguneak izan daitezkeen mendeko perpausetako galdegaien helmuga. Dioskunaren arabera benetako galdegaia soilik igo daiteke eta ezeztapenaren aurrean dagoen galdegaigunera egingo du mugimendua.

(38) MIRENEK ez dut uste sagarra jan duela.

(39) *Ez dut MIRENEK uste sagarra jan duela.

Lehenengo perpausuan *Mirenek* galdegaia ezeztapenaren aurreko galdegaigunera igo da eta zilegi dela dirudi. (39)-n, ordea, *Mirenek* galdegaia ukagaiarekin lotzen den posiziora mugitu dugu eta perpaus ezgramatikala sortu.

Adierazi bezala, bi galdegaigune bereizten dira euskarazko ezezko perpausetan. Hori jakinda, bi galdegaiak perpaus berean agertzea zilegi den sor daitekeen galderetako bat da. Galdegaigune bat beterik izateak ez du bestean elementu bat egotea eragozten Etxepare eta Ortiz de Urbinak (2003) azaltzen dutenaren arabera. Hori (40) perpausuan ikus daiteke:

(40) Sagarra ez du Jonek jan.

Aurreko adibide honetan galdegaia dugu, *sagarra* osagaia hain zuzen, baita ukagaia ere, *Jonek*. Beraz bi galdegaiguneak perpaus berean beterik agertzeak esaldi gramatikalak sortzen ditu.

Baina, zein osagai ager daiteke galdegaigunean? Galdegaiak eta ukagaiak mintzagai gunean ager al daitezke? Galdegaia galdegaigunean soilik ager daiteke eta ez beheragoko egonguneren batean edo mintzagaigunean. Ukagaia bere ohiko posizioan azaltzean gain topikalizaturik ere topa dezakegu. Beraz, bigarren galderaren erantzuna argia da: galdegaiak ezin du mintzagaia izan, ukagaiak berriz bai. De Rijken (1996)

ikuspuntu honekin bat dator Osaren (1990) esana. Lafitteren (1944) lanaz mintzo dela honakoa dio Osak (1990: 200): “[...] horietako bat (edo beste) tarte horretaz kanpo ateratzen dugunean, tartean gelditzen denak ez duela galdegai¹⁰ izan beharrik, aitzineraturen batek ere bete dezakeelarik funtzio hori.” Aurrerago adierazten du ukagaiak, berak galdegai kontrajarria deitzen dio, ez duela derrigorrez tarte horretan joan beharrik eta mintzagaigunean kokaturik ageri den adibidea dakarkigu:

- (41) *Aita* ez da etorri, ama baizik. (Osa 1990: 205, letra etzana nirea da)

Ortiz de Urbinak (1999) hasiera batean dio posible litzatekeela ukagaia topikalizatzea, bi posizioetan ezetzaren besarkaduraren mende egongo bailitzateke. Baina lanean aurrera egin ahala irakur daiteke ez dirudiela egokia perpaus batean sasigaldegai¹¹ topikalizatu bat dagoela esatea, sasigaldegai fokalizatu terminoa deuseztatzen badugu. Beraz, bere ustetan hiru kokalekuren araberako bereizketa egin behar da: batetik mintzagaia, bestetik galdegaia eta azkenik ukagaia. Hurrengo hiru adibideak ematen ditu, posizio bakoitzeko bana:

- (42) *Ardorik*, ez dut edaten (mintzagaia edo topikoa).

- (43) *Ardorik* ez dut edaten (galdegaia edo fokua).

- (44) Ez dut *ardorik* edaten (sasigaldegia edo ukagia).

(Ortiz de Urbina 1999: 194)

Badira zenbait ezaugarri ikerlariak desberdin lantzen dituztenak, izenordain indartuen eta *-xe* atzizkidun elementuen kasua da hori. Ezaugarri sintaktikoez dihardutela aipatzen dituzte zenbait ikertzailek, baina bada ezaugarri morfologikoen eremuan azaltzen dituenik.

Etxeparek eta Ortiz de Urbinak (2003) de Rijken (1996) aipua euren lanera ekarriz, izenordain indartuak soilik galdegai izan daitezkeela diote. Arejitaren (1978) lanak baieztapen hori indartzen du, izenordain indartuak aditzaren aurre-aurrean agertzea galdegaia dugunaren seinale dela dioelako.

- (45) NEUK ez dut jan sagarra.

- (46) *Ez dut NEUK jan sagarra, Mirenek baizik.

¹⁰ Lan honetan ukagai deitzen diogunari egiten dio erreferentzia.

¹¹ Honela deitzen dio lan honetan ukagaiari. Gerora proposatuko du ukagai deitura.

Ortiz de Urbinak (1999), berriz, galdegai eta ukagaien ezaugarri morfologikoez ari denean aipatzen ditu izenordain indartuak.

-xe atzizkidun elementuak galdegaiak soilik izan daitezke de Rijkn (1996) arabera (47) eta hortaz ez dugu ukagairik topatuko atzizki honekin (48).

(47) HEMENTXE ez du topatu liburua.

(48) *Ez dut HEMENTXE topatu liburua, ondoko gelan baizik.

Arejitak (1978) galdegaien ezaugarriak aurkeztean, atzizki hau aipatzen du hauen adierazgarri gisa. Bi aztertzaile hauek ez dira bakarrak, Etxepare eta Ortiz de Urbinaren (2003) gramatikaren fokalizazioaren inguruko atalean aurki baitezakegu, de Rijk (1996) dakarte eta euren analisisira. Ortiz de Urbinaren (1999) lanean ere aipatzen da, baina desberdintasun nabarmen batekin, ikerlan honetan ezaugarri morfologiko gisa sailkatzen du eta, gainontzeko guztiek sintaxiaren eremuan kokatu duten bitartean.

Izenordain indartuek eta *-xe* atzizkiak desberdindu egiten dituzte galdegaiak eta ukagaiak. *-rik* partitibo markaren erabilerak ordea, ez du bereizketarik egiten. Osaren (1990) lanean, *-rik* partitibo markadun elementuak bai ukagai eta bai galdegai izan daitezkeela adierazten da.

(49) SAGARRIK ez dut jan (galdegaia).

(50) Ez dut SAGARRIK jan (ukagaia).

(51) *Sagarrik*, ez dut jan (mintzagaia).

7. Analisi sintaktikoa

Perpausen ezaugarri semantiko eta sintaktikoen deskribapena analisiarekin uztartzea izango da atal honen xedea. Bertan, aztertutako ezaugarriek syntaxian duten eragina azaltzen eta irudikatzen saiatuko naiz. Oro har, besarkadurak edo o-komando baldintzak galdegaiak eta ukagaiak bereizteko garaian duen eragina islatzen saiatuko naiz, sortzen diren egituren analisi sintaktikoa eskainiz. Horretarako o-komandoa definituko dut lehenengo hainbatetan aipatua izango baita.

(52) O(sagai)-komandoa (Artiagoitia 2001):


A adabegiak B adabegia o-komandatzen du baldin (eta soilik baldin):

a. A-ren eta B-ren artean, batak bestea menderatzen ez badute; eta

b. A menderatzen duen lehen adabegi adardunak B ere menderatzen badu.

Ezezeko perpaus desberdinen analisiari ekin baino lehen Laka (1991) ezezeko perpausetarako proposatzen duen zuhaitza lan honetara ekarri nahi dut:

(53) Ezezeko perpausen analisia (Laka 1991)




Lakaren (1991) analisi honetan InflS-ren gainetik bi proiektzio daude: KonpS eta EzeztS. Konp buru azkena de bitartean Ezezt buru-lehena da. Irudikatu den bezala Ezezt buruak Infl burua erakartzen du *Denboraren o-komando baldintza* bete behar delako. Baldintzaren arabera inflexioak ezeztapena o-komandatu beharra dauka. Beste analisi batzuetan ez bezala (Haddican 2008, adibidez)¹² ez osagaia buru funtzionala da. Lanean hizpide dugun fokua KonpS-ren espezifikatzaile gunean kokatuko litzateke analisi honetan edo agian jada FokS-ren espezifikatzailean.

Ezeztapena eta galdegaia uztartzen dituen perpaus bat hartu behar orain eta Lakaren (1991) diagrama hartuta perpausaren analisi sintaktikoa aurkeztu.

¹² Ondoren ekarriko da lanera bere proposamena.

(54) PERU ez da etorri.




Zuhaitzari erreparatuz gero ikus daiteke Infl burua Ezezt burura mugitu dela. Beste mugimendu bat ere gertatu da, galdegaiaren KonpS-ren espezifikatzaile gunerako mugida hain zuzen.

Laka (1991) ez da izan, noski, analisisa proposatu duen bakarra. Beste hainbaten artean Haddicanek (2008) ere badakar berea. Lan horretan euskarazko sintagmen hurrenkera espezifikatzaile-buru-osagarri dela defendatu nahi du. Amaiera aldera baieztatu eta ezeztoko perpausen eratorpena nolakoa den adierazten duenean analisisirako proposamena aurkezten du. Lakaren (1991) analisiarekin konparatuta, Haddicanen (2008) proposamenean ezker periferiako sintagmen kopurua areagotu egiten da. Alde nabariak badaude batetik bestera, EzeztS-ren kokagunea esaterako. Haddicanek (2008) DenbS-ren behean proiektatzen du eta *ez* osagaia ez da burua, EzeztS-ren espezifikatzean kokatzen baitu. Nahiz eta ezeztapena DenbS baino beheragoko egongune batean sortzen den ezeztapena eta *ez* elementuak PolS-rako mugida egiten

dute, DenbS-ren gainera pasatuz. Ezeztapen buruak Pol bururako mugimendua egiten du eta ez osagaia [Espez, PolS]-ra mugitzen da.


(55) Ezezko perpausen analisia (Haddican 2008)



Lan honetan Haddicanen (2008) analisiari jarraituko diot bietarik bietarik berriena izateaz gain osatuena ere iruditzen zaidalako. Baina aurkeztutako egiturari hainbat egokitzapen egin nahi dizkiot buruaren eta osagarriaren hurrenkerari dagokionez. Izan ere, euskararen inguruan ezagun da hizkuntza buru-azkena dela. Hori oinarri hartuta, DenbS-tik beherako buru guztiak buru-azken gisa irudikatuko ditut eta beraz, espezifikatzaile-osagarri-buru hurrenkera izango dute sintagmek. Proiekzioen

islapenean Haddicani (2008) jarraituko diodan arren, buruaren kokapenerako Lakaren (1991) proposamena hobetsiko dut¹³.

(56) Ezezko perpausen analisia (Haddican 2008, zenbait aldaketarekin)




Lakaren (1991) analisisian atzemandako mugimendu berdinak gertatzen dira, baina oraingoan Denb Pol burura mugitu baino lehen Ezezt burua Denb burura igo da. Ondoren gertatu da Denb-ren Pol bururako mugida.

Har dezagun (54)-eko perpausa eta azken proposamen honen arabera analizatu:

¹³ Infl do Denb burutik beherako buru guztiak buru-azken irudikatuko ditut.

(57) PERU ez da etorri



Ukagaia ezeztapenaren besarkaduraren mende edo ezetzak o-komandatuta egon behar du.


(58) Inor/Miren ez da etorri.

(59) Ez da inor/Miren etorri.

(60) Ez da etorri Miren/inor.


Hau ikusita zehaztu beharko posizio bakoitzerako zein analisi sintaktiko proposatu behar den.

(61) (inor/Miren) ez da (inor/Miren) etorri (inor/Miren)



(61)-ko zuhaitza orokorra da, bere horretan (59)-ren berri soilik ematen baitu. Ikus daitekeenez ezeztapenak *inor/Miren* osagaia o-komandatzen du. Izan ere, batak bestea ez dute menderatzen eta Ezezt buruaren lehen adabegi adarreztatuak *inor/Miren* menderatzen du. (58)-ko egitura lortzeko beste mugimendu bat beharko genuke, perpaus horretan *inor/Miren ez* osagaiaren ezkerrean agertzen da eta. Hori azaltzeko PolS-ri ezkerreko aldetik adjuntaturik dagoela onartuko dut.

(62) Inor/Miren ez da etorri¹⁴



¹⁴ Perpaus honetan o-komandoa baino erlazio zabalagoa behar dugu *inor/Miren* ezeztapenaren besarkadurapean egoteko.


(I) N-komandoa (Artiagoitia 2001):

A adabegiak B n-komandatzen du baldin eta (soilik baldin)

- a. A-k B menderatzen ez badu, ezta B-k A ere; eta
- b. A menderatzen duen lehen islapen nagusiak B ere menderatzen badu.

Ez da etorri inor/Miren perpauserako (62)-ko egiturarako bezala PolS-ra adjuntaturik dagoela onartuko dut, baina oraingo honetan eskuinerantz adjuntaturik dagoela.

(63) *Ez da etorri inor/Miren*¹⁵



Fokua eta ezeztapena perpaus berean agertzen direneko egiturei heldu behar orain. Lehen adierazi bezala, galdegaia ezetzak ez du besarkatzen eta hori hala izan dadin elementu horiek non kokatzen diren ikusi beharko. Horrelakoetan galdegaia ezeztapenak o-komandatzen ez duen FokS-ren espezifikatzailean kokatu ohi ditugu. Lanean zehar galdegaia duten perpausak hiru hurrenkera desberdinetan eman dira.

(64) MIREN ez da etorri.


(65) Ez da MIREN etorri.

(66) Ez da etorri MIREN.

Lehen kasuan foku askea daukagu, bigarreanean foku uztartua eta azkenekoan foku zuzentzailea. Hiru egiturek badute antzekotasunik, baina zenbait mugimendu sintaktikok desberdindu egiten dituzte.

¹⁵ Perpaus honetan ere n-komandoaren beharra daukagu.

(67) (MIREN) ez da (MIREN) etorri (MIREN)




(64)-ko perpausaren analisisa da hau, gainontzekoetarako mugidaren bat proposatu beharrean baikaude. Perpausean nabarmentzen den *MIREN* osagaiak FokS-ren espezifikatzaileko mugida egin du. Horrez gain, Denb buruak Pol buruarekin bat egin du, Ezezt Denb-ra mugitu ondoren. Nahiz eta hemen ez den irudikatu ErgS-tik beherako hainbat buru funtzionalek bat egin dute gero Ezezt burura igotzeko. Gero Ezezt-k Denb buruarekin bat egitean aditz laguntzailea osatu da.

(66)-n adierazi den egituran foku zuzentzailea dugu eta horren eratorpenerako (67)-eko diagraman adierazi mugidez gain beste bat proposatu beharko genuke. Ortiz de

Urbinak (2002) hondarkinaren mugimendua¹⁶ gertatzen dela azaltzen du. Mugida honen bidez, fokua [espez, FokS]-ra mugitu ondoren geratu den perpausaren zatiak TopS-rako mugida egiten du.


(68) Ez da etorri MIREN



Ukagaia galdegaia den perpauserako (65) agian Pol burua FokS-ri adjuntatzen zaiola proposatu behar. Hala, lehendabizi (67)-eko mugidak gertatuko lirateke eta ondoren mugituko litzateke Pol burua eta honen gaineratik *ez* elementua daraman AdbS legoke.

¹⁶ *Remnant movement* dio berak, baina Uribe-Etxebarriak (2003) hondarkinaren mugimendua erabiltzen du euskaraz.

(69) Ez da MIREN etorri



8. Ondorioak

Lanaren helburua ezezko perpausetako galdegaiak eta ukagaiak bereiztea izan da, ez baita gauza bera *Sagarra ez dut jan* eta *Ez dut sagarra jan* esatea. Baina ezezko perpausetan bereizten diren galdegaien sailkapenari heldu baino lehen baiezko perpausetako galdegaien inguruko hainbat datu ekarri dira lanera. Beaudrieri (2005) jarraituz galdegaiak informazio berria dakarren osagaia dela adierazi da. Informazio fokua eta kontraste fokua bereizi dira, azken honen barnean zuzenketa fokuari garrantzia eman zaiola. Galdegaiaren ohiko egongunea aditzaren aurre-aurrekoa da normalean horretarako perpausaren gutxieneko bi mugida beharrezko direla: aditzaren ezkerrean mugimendua eta galdegaiaren mugida aditzaren aurrera. Baina, adierazi bezala zuzenketa fokua perpausaren eskuin aldean agertzen da, bi mugida horien ondoren hondarkiaren mugimendua jasanez.

(70) AMAIAK jan du sagarra.

(71) Sagarra jan du AMAIAK.

Galdegaiak informazio berria dakarren perpausaren atala dela eta ukagaiak ezezko perpausetan ezeztatzen den elementua jakinarazi da lanean. Hori azaltze aldera, XX.

mendean zehar eginiko hainbat ikerlan ekarri dira lanera. Hirugarren atalean irakurri den moduan lanik zaharretan, Altube izan dela baliatu dudan testurik zaharrena, ukagaia terminoaren erabilera ez da irakurtzen. Baina adierazi behar da identifikatu zutela aditz laguntzailearen eta partizipioaren arteko galdegaia. Baliteke osagai horiek galdegai izena jaso izana, 5. Atalean adierazi den bezala, ukagaia bera galdegaia zelako eta hortaz informazio berria zekarrelako. Osaren (1990) lanean galdegai kontrajarria aipatzen hainbat urtetara de Rijk eta Ortiz de Urbina bezalako ikerlariak bereizketa finkatu zuten: batetik galdegaia eta bestetik ukagaia.


Bereizketa sendotze aldera ezaugarri semantikoetan nagusia ezeztapenaren besarkadura harremana dela defendatu dut. Galdegaia ezeztapenaren besarkaduratik kanpo gelditzen da batzuetan eta beste zenbaitetan besarkadurapean dago, ukagaia aldiz, beti dago ezeztapenaren besarkadurapean. Besarkadura harremanarekin loturik bi ezeztapen mota bereizi dira Oihartzabali (1985) jarraituz: asertzioari dagokiona (edo Sánchezek (1999) kanpo-ezeztapena deiturikoa) eta maila predikatiboari dagokiona (barne-ezeztapena deitzen dio Sánchezek (1999)). Sailkapen honen parekoa ikusi dugu Etxepare eta Uribe-Etxebarriaren (2008) eskutik: foku zabala eta foku uztartua. Bai asertzioari dagokion ezeztapenean, bai kanpo-ezeztapenean edota foku zabaleko interpretazioan asertzio osoa, hots, perpaus osoa, ukatzen da. Ezeztapenaren bigarren motan, berriz, ezeztapenaren besarkaduraren mende dagoen osagai bat ukatzen da.

4.1. atalean adierazi den eran ukagaiak ezeztapenaren besarkaduraren mende egon behar du dagoen posizioan dagoela. Gainera EPE-ek ukagaiak bezala jokatzeko dutela ikusi dugu.

- (73) Inor/Miren ez da etorri.
- (74) Ez da inor/Miren etorri.
- (75) Ez da etorri inor/Miren.

Hiru hurrenkera hauek barne biltzen dituen analisi sintaktikoa proposatu da Haddicani (2008) jarraituz. Oinarrizko mugimenduak dituen zuhaitza da hurrengoak, (74) perpauserako nahikoak direnak adierazten dituena, baina 7. atalean ikusi bezala beste bi perpauserako mugimendu gehigarriak eskatzen dituzte.

(76)




Ondoren, galdegaiaren eta ezeztapenaren arteko harremanaren berri eman da. Ikusi ahal izan denez bateragarriak dira eta posizio desberdinetan ager daiteke galdegaia.

- (77) MIREN ez da etorri. (Foku askea)
- (78) Ez da MIREN etorri. (Foku uztartua)
- (79) Ez da etorri MIREN. (Foku uztartua)

Hiru perpaus hauen hitz hurrenkera adierazten duen analisia aurkeztu da 7. atalean, desberdintasun sintaktikoak baitaude beren artean. Ondorengo zuhaitzean (77) azaltzen duen analisia eskaintzen da, baina lehen esan bezala gainontzekoak zuhaitz honetatik eratorzen dira, hainbat mugimendu gehiago eginez.

(80)



Alderdi sintaktikoei dagokienez, aurreko bi zuhaitzetan nabarmenena dena aipatu dut, galdegaiaren ohiko egongunea [ez+lag] elementu konplexuaren aurrekoa dela, ukagaiak posizio finkorik ez izan arren aditz laguntzailearen eta partizipioaren artean kokatu ohi diren bitartean.

(81) SAGARRA ez dut jan.

(82) Ez dut SAGARRA jan.

Kokapenarekin loturik, ukagaia eta galdegaia topikalizatzerik ba ote den galdera luzatu da. Galdegaia ezin da topikalizatu baina ukagaiari dagokionez, hasiera batean Ortiz de Urbinak (1999) adierazi zuen posible zela ukagaia topikalizatzea. Hala ere, lan hartan bertan mintzagaia, galdegaia eta ukagaia ez nahastearen alde egin zuen eta hortaz, ukagaiaren topikalizazioa baztertu.

Galdegaiarekin loturiko bi egongune bereizi dira, [ez+lag] aurrekoa eta aditz laguntzailearen eta partizipioaren artekoa eta perpaus berean biak agertzea zilegi dela frogatu da, perpaus gramatikalak sortzen baitira.

(83) Amaiak ez du oparia ikusi.

Azken perpaus honetan galdegaia den *Amaia* eta ukagaia den *oparia* agertzen dira batera eta ez dirudi inongo arazorik dagoenik perpausa gramatikaltzat emateko.

9. Bibliografia

Altube, S. 1920. *De sintaxis eukérica*, San Sebastián: Martín y Mena inprenta.

Altube, S. 1929. *Erderismos*, Bermeo: Gaubeka.

Arejita, A. 1978. *Euskal joskera*, Durango: Zugaza.

Beaudrie, S. 2005. “Refinando la noción de foco en español: cuestiones semánticas y sintácticas”, *Arizona Working Papers in Second Language Acquisition and Teaching* 12, 12-30.

De Rijk, R. P. G. 1996. “Focus and Quasifocus in Basque negative statements”, in *Revista Internacional de Estudios Vascos* 41-1, 63-76. [Berrag. In de Rijk (1998), *De Lingua Vasconum: Selected Writings*, Bilbo & Donostia: EHU & Gipuzkoako Foru Aldudia, 421-433]

Elordieta, A. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, Utrecht: Netherland Graduate School of Linguistics – LOT.

Etxepare, R. eta J. Ortiz de Urbina. 2003. “Focalization”, in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*, Dordrecht: Kluwer, 459-516.

Etxepare, R. eta M. Uribe-Etxebarria. 2008. “On negation and Focus in Spanish and Basque”, in X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan: Patxi Goenagaren omenez*, ASJU Gehigarriak 51, Bilbao: UPV/EHU, 287-310.

Haddican, B. 2008. “Euskal perpausaren Espez-Buru-Osagarri hurrenkeraren aldeko argudio batzuk”, in I. Arteatx, X. Artiagoitia eta A. Elordieta (arg.), *Antisimetriaren Hipotesia vs. Buru Parametroa. Euskararen Oinarritzko Hitz Hurrenkera ezbaian*, Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 69-96.

Lafitte, P. 1944. *Grammaire Basque (Navarro Labourdin littéraire)*, Baiona.

Laka, I. 1991. “Sentence negation in Basque”, in J. A. Lakarra eta I. Ruiz Arzalluz, *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum II*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 899-926.

Mitxelena, K. 1981. “Galdegaiak eta mintzagaia euskaraz”, *Euskal linguistika eta literatura: Bide Berriak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 57-81.

Molnár, V. 2002. “Contrast-from a contrastive perspective”, in *Languages in Contrast* 9, 147-161.

Oihartzabal, B. 1985. “Behako bat ezezko esaldieri”, *Euskera* XXX, 103-115.

Ortiz de Urbina, J. 1999. “Ezezko perpausetako fokalizazioaren inguruan”, *Enseiukarreen* 14, 185-198.

Ortiz de Urbina, J. 2001. “Ezezko perpausetako Fokoak (Galdegaiak eta Ukagaiak)”, in *IKER* 14, Bilbo: Euskaltzaindia, 343-356.

Ortiz de Urbina, J. 2002. “Focus of correction and remnant movement in Basque”, in X. Artiagoitia, J. A. Lakarra & P. Goenaga (arg.), *Erramu Boneta: a festschrift for Rudolph P. G. De Rijk*, ASJU Gehigarriak 44, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 511-524.

Osa, E. 1990. *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Sánchez, C. 1999. “La negación”, in I. Bosque eta V. Demonte (arg.), *Gramática Descriptiva del español* vol. II, Madrid: Real Academia Española/Espasa Calpe, 40. kap, 2561-2634.

Uribe-Etxebarria, M. 2003. “Euskararen eta Hizkuntza Erromanikoen Foko Egituren arteko zenbait paralelotasunez”, in J. Makazaga eta al. (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika Gaiak*, *IKER* 14 (1), Bilbo: Euskaltzaindia, 437-457.